



REAL FEDERACIÓN
ESPAÑOLA DE KARATE Y D.A.

ESPAINIAKO KARATEKO ETA DAen ERREGE-FEDERAZIOA

ERANSKINAK

LEHIAKETA-ARAUDIA

KUMITE ETA KATA

BEHEKO KATEGORIAK

AURKIBIDEA

TALDEKAKO PROBA TEKNIKOEN ARAUAK.....	3
KUMITE ARAUAK, KATEGORIEN ARABERA.....	9
KIMUAK GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK	
HAURRAK GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK	
GAZTEAK GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK	
KATA ARAUAK, KATEGORIEN ARABERA	15
BENJAMINAK GIZONEZKOAK ETA	
EMAKUMEZKOAK	
KIMUAK GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK	
HAURRAK GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK	
GAZTEAK GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK	
TALDEEN ARABERAKO KATA	
OINARRIZKO KATEN ZERRENDA OFIZIALA	17
GAZTEEN/HAURREN KATA-ZERRENDA OFIZIALA	17

ESPAINIAKO TXAPELKETEN ARAUDIA TALDEKAKO PROBA TEKNIKOAK

1. ARTIKULUA: KATEGORIAK

1.1 Modalitate honetan kategoria hauek egongo dira:

a.	HAURRAK:	11 urte betetzen dituzten urte naturala, edo
b.	GAZTEAK:	12 edo 13 urte betetzen dituzten urte naturala.
c.	KADETEAK:	14 edo 15 urte betetzen dituzten urte naturala.
d.	JUNIORRAK:	16 edo 17 urte betetzen dituzten urte naturala.
e.	SENIORRAK:	16 urte betetzen dituzten urte naturala, edo lehenagokoak.

1.2 Junior lehiakideek erabaki beharko dute beren kategorian edo Senior kategorian parte hartuko ote duten.

1.3 Kategoria bakoitzeko adin guztiak dagokion txapelketa egiten den urte naturalari dagozkio.

1.4 Taldeen osaera maskulinoa, femeninoa edo mistoa izan daiteke.

2. ARTIKULUA: PROBAK

2.1 KIHON

Proba hau librea da, baina exekutatzen denean nahitaez teknika hauek egin beharko dira:

- Ukabila eta besoa
- Esku irekia
- Zangoa
- Defentsak

Kontuan izanik proban parte hartzen duten lehiakideak ezingo direla markatutako lehiaketa-eremutik irten.

Lehiaketa-eremutik irten dela joko da lehiakide baten edo gehiagoren oinak markatutako eremutik kanpo zapaltzen direnean.

2.2 DEFENTSA PERTSONALA

Ekimen askekoa, nahiz eta berariaz debekatuta dagoen edozein motatako arma erreal edo simulatuak erabiltzea.

2.3 KATA

Dagokion kategoriaren arabera, Katak egin ahal izango dira behean zehaztutakoarekin bat etorritz:

- HAURRAK: ***Oinarrizkoen Zerrendako Katak soilik egin ahal izango dituzte bi itzulietan.***
- GAZTEAK: ***Gazteen-Haurren Zerrenda Ofizialeko Katak egin ahal izango dituzte.***
- KADETEAK / JUNIORRAK / SENIORRAK:

Zerrenda ofizialeko edozein Kata egin ahal izango dute, WKF / RFEKren indarreko Kata-lehiaketan Araudiaren 1. Eranskinaren arabera.

Kata bera egin ahal izango da bi itzulietan.

3. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEAK.

- 3.1 Lehiaketa 2 itzulitan egingo da. Lan bera aurkeztu ahal izango da bi itzulietan. Talde bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua 4 izango da gutxienez, eta 6 gehienez. Txanda bakoitzeko parte-hartzaile guztiek, gutxienez, proba bat elkarrekin egin beharko dute.
- 3.2 Kihon proban, lehiakide bakar bat ere ezingo da inoiz geldirik egon.
- 3.3 Taldean erreserbako lehiakide bat egon ahal izango da.
- 3.4 Txanda bat hasi ondoren, ezin izango da taldekiderik aldatu edo gehitu; hau da, txanda bat hasten duten lehiakideek 3 tatamietan osatu beharko dute proba.
- 3.5 Erreserbako lehiakidea lehenengo txanda amaitzean irten ahal izango da, eta bigarren txandan parte hartu, baldin eta hura hasi aurreko jokalaria-zerrendan hasten bada.

4. ARTIKULUA: MAILAK.

Espainiako Txapelketan parte hartzeko eskatuko den gutxienerako maila hau izango da:

- | | |
|----------------------|---------------------------|
| a) HAURRAK : | GERRIKO BERDEA gutxienez |
| b) GAZTEAK : | GERRIKO URDINA gutxienez |
| c) KADETEAK : | GERRIKO URDINA gutxienez |
| d) JUNIORRAK: | GERRIKO MARROIA gutxienez |
| e) SENIORRAK: | GERRIKO MARROIA gutxienez |

5. ARTIKULUA: PROBEN IRAUPENA

5.1. KIHON ETA DEFENTSA PERTSONALA

- a. HAUR eta GAZTE kategorietan, proba bakoitzean gutxienez 45 segundo eta gehienez 60 segundo erabiliko dira.
- b. KADETE, JUNIOR eta SENIOR kategorietan, proben iraupena 60 segundokoa izango da gutxienez, eta 75 segundokoa gehienez.
- c. **Kategoria guztietan (+ -) 5 segundoko tolerantzia-denbora dago.**
- d. Kronomarkagailu elektronikoak erabiliko dira, eta horiek markatzen duten denbora **DENBORA OFIZIALA** izango da ondorio guztietarako.

5.2. KATA

Kata exekutatzek irauten duen denbora.

6. ARTIKULUA LEHIAKETA-EREMUA

Lehiaketa-eremua ilaran jarritako hiru (3) tatamik osatutako azalera laua izango da; tatamiak 1etik 3ra zenbakituta egongo dira, eta bakoitzak arauzko neurriak izango ditu (8x8), horien artean gutxienez 1,5 m-ko tarte dagoela.

7. ARTIKULUA: JARDUTEKO ARAU OROKORRAK.

- 7.1. Lehiakide guztiak egongo dira Txapelketaren antolatzaileek berariaz ezarritako eremuan, eta bertan itxarongo dute parte hartzeko txanda.
- 7.2. Abisua ematen zaienean, taldea osatzen duten kide guztiak prestasunez joango dira lehiaketa-eremuaren sarrerara, eta bertan aurkeztuko zaizkio koordinatzaileari.
- 7.3. Behin taldea koordinatzaileari aurkeztu ondoren, eta hark taldea behar bezala osatuta dagoela egiaztatu ondoren, 1. tatamira joango dira.
- 7.4. Zutabeen mugituko dira, koordinatzaileak gidatuta eta lehiakideak atzetik dituela.
- 7.5. Behin lehiaketa-eremuko kanpoaldean daudenean, Erdiko Epailearen aurrean, Musubi-Dachi posizioan, agurra egingo dute, eta tatamian sartuko dira.
- 7.6. Tatamiaren barruan daudenean, taldeak aukeratutako antolaera hartuko dute eta, Heiko-Dachi posizioan daudela, Erdiko Epaileari begira, Epaile Nagusiak seinalea egiteko zain geratuko dira beren esku-hartzea hasteko.
- 7.7. Epaile Nagusiak, txilibitua behin joz, **DENBORAREN HASIERA** adieraziko du, eta probak aldi berean hasiko dira talde parte-hartzaileek okupatutako tatamietan.
- 7.8. Esku-hartzea amaitutakoan, taldekide guztiak amaierako posizioa hartuko dute, Heiko-Dachi posizioan Erdiko Epaileari begira jarritz, eta posizio horretan jarraituko dute Epaile Nagusiak, txilibitua behin joz, proben amaiera orokorra iragarri arte. Seinalea entzutean, atzera egingo dute aldi berean eta biratu gabe tatamiaren aurrealdeko lerro atzeraino. Bertan itxarongo dute puntuazioa jakin arte, Musubi-Dachi posizioan. Tatami bakoitzean **DENBORAREN AMAIERA** izango da azken lehiakideak Heiko-Dachi posizioa hartzen duen unea.
- 7.9. Epaileek puntuatu eta gero, eta Epaile Nagusiak puntuazioak jaisteko seinalea egitearekin batera, talde osoak agurra egingo du eta, koordinatzaileari jarraituz, dagokion tokira desplazatuko da taldea.
- 7.10. Probaren batean parte hartzen ez duen talde bateko kideak tatamiaren aurrealdeko lerro atzean egongo dira, Heiko-Dachi posizioan, gainerako kideak leku horretara itzuli arte.
- 7.11. Deskribatutako prozesua metodikoki errepikatuko da taldeak 3 probetan esku-hartzea osatu arte, eta koordinatzaileari jarraituz lehiaketa-eremutik kanpo desplazatuko da, lehiatutako txandako bere jarduera bukatutzat emanez. Jarraian, koordinatzaileak Mahai Ofizialari jakinaraziko dio taldeak 10.7 puntuko eskakizuna bete ote duen.
- 7.12. Lehiakide batek izena eman duen taldea bakarrik ordezkatu ahal izango du.

8. ARTIKULUA: EPAILEAK

- 8.1. RFEKren Arbitrajeko Sail Nazionalak dei egingo die Epaileei, Kata Epaile Nazionalaren titulua dutenen artean.
- 8.2. Tatami bakoitzerako arbitraje-taldea Arbitraje Batzordeak izendatutako bost epailek osatuko dute.
- 8.3. Arbitraje Batzorde bera arituko da 1. eta 2. itzulietan, eta ezingo da aldatu, Arbitraje Batzordeak hala erabakitzen duenean izan ezik beharrezkotzat irizten duelako.
- 8.4. Epaileak honela kokatuko dira: bat erdian eta 4 izkinetan; horiek markagailuak erakutsiko dituzte, puntuak eskuineko eskuan mantenduz eta hamarrenak ezkerreko eskuan.
- 8.5. Epaile Kronometratzaile bat eta Epaile Idazkari bat ere izendatuko dira tatami bakoitzerako.
Epaile Idazkariak paleta GORRI 1 eta paleta URDIN 1 izango ditu, taldea baimendutako denbora-tarteetatik kanpo dagoela adierazteko. Horrela eginez gero, zutik jarriko da paleta goian duela, arbitro-taldeak bere erabakia eman aurretik.
- 8.6. Aipatutakoez gain, Epaile Nagusi bat izendatuko da, eta eginkizun hauek izango ditu:
 - a) Hiru tatamietan lehiaketa aldi berean garatzen dela koordinatzea.
 - b) **DENBORAREN HASIERA** adierazteko seinalea ematea hiru tatamientzat, txilibitua behin joz.
 - c) Epaile guztiek puntuazioak altxatu behar dituzten unea markatzea.

9. ARTIKULUA: PUNTUAZIOA

- 9.1. Puntuazio-baremoak hauek izango dira:
 1. itzulia.....6tik 8ra
 2. itzulia.....7tik 9ra
- 9.2. 2. itzulirako % 40 sailkatuko dira (goiko zenbaki osora biribilduz) 1. itzuliko puntuazio handieneko parte-hartzaileen kopuruaren gain, hiru proben notak batuz eta tatami bakoitzean nota maximoak eta minimoak ezabatuz.
- 9.3. Berdinketa gertatuz gero, sailkatuko dira **3 probetatik ezabatutako hiru nota minimoak batuz puntuaziorik altuena dutenak; berdinketak jarraitzen badu, ezabatutako nota maximoen batura handiena duena sailkatuko da. Berdinketak jarraitzen badu, hauek hartuko dira kontuan:**
 - **Baliozko hiru nota minimoen batura.**
 - **Baliozko hiru nota maximoen batura.**
 - **Oraindik ere berdinketa gertatuz gero, Kata-proba errepikatuko dute, egindakoa ez den beste bat eginez (dagokion zerrenda ofizialaren barnean); proba horretan puntuaziorik handiena lortzen duena sailkatuko da.**
 - **Berrito berdinketa gertatuko balitz, erabakiko litzateke 9.5 (b) puntuan adierazten den bezala.**
- 9.4. Lehiaketaren azken emaitza lehenengo eta bigarren itzulietan lortutako puntuen baturak zehaztuko du.
- 9.5. **Berdinketa gertatuz gero kontuan hartu beharreko prozesua:**

- a) Berdinketa gertatuz gero, bi itzulietatik ezabatutako hiru nota minimoen baturarik handiena duena izango da irabazlea; berdinketak jarraitzen badu, bi itzulietatik ezabatutako nota maximoen baturarik handiena duena izango da irabazlea.

Berdinketak jarraituko balu, hau hartuko litzateke kontuan:

- Bi itzulietako baliozko hiru nota minimoen batura.
- Bi itzulietako baliozko hiru nota maximoen batura.
- Oraindik berdinketak jarraitzen badu, Kata-proba errepikatuko dute, egindakoa ez den beste bat eginez (dagokion zerrenda ofizialaren barnean); berdinketa hausteko proba horretan puntuaziorik handiena lortzen duen taldea izango da irabazlea.

- b) Behin betiko proba horretan (Kata berrian) berdinketa gertatuz gero, irizpide berari jarraituko zaio: Irabazlea izango da ezabatutako nota minimorik handiena duena; berdinketak oraindik ere iraungo balu, ezabatutako nota maximorik handiena duena izango da.

Berdinketak jarraituko balu, hauek hartuko lirateke kontuan:

- Baliozko nota minimoaren batura.
- Baliozko nota maximoaren batura.
- Azken aukera hau izango litzateke: Arbitraje Taldeak Hantei bidez erabakiko luke irabazlea.

10. ARTIKULUA: ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK

- 10.1. Emandako epaiak faktore hauek hartuko ditu kontuan:

- *Ekintzen kalitate teknikoa.*
- *Parte-hartzaileen koordinazioa.*
- *Espresioa.*
- *Bariatatea eta originaltasuna.*
- *Karate-Do espiritua, taldeen aurkezpena eta diziplina-jarrera.*
- *Probako parte-hartzaileen kopururik handiena.*

- 10.2. Uneren batean taldekideren bat jarraitu ezinik gelditzen bada, epaile zentralak **ZERO** puntuazioa emango dio proban taldeari.

- 10.3. Lehiakide batek edo gehiagok huts egiten badute eta jarraitzen badute edo zalantzaren bat eduki eta gero gelditu eta jarraitzen badute, taldeak **5** puntuko puntuazioa jasoko du, Erdiko Epailearengandik soilik.

- 10.4. Talde bateko lehiakide bat edo gehiago ez aurkezteak (izena emateko orri ofizialaren arabera) taldea berehala deskalifikatzea eragingo du.

- 10.5. Esku-hartzea ezarritako denbora-tarteetatik kanpo amaitzen duen taldea honela puntuatuko da:

- a) Araututako mugetatik kanpo balego **gehienez** ere 5 segundoko aldearekin soberan nahiz faltan (**bandera urdina**), epaile bakoitzak penalizazioa ezarriko dio, 3 hamarren kenduz ezarritako denbora-mugetan amaituz gero emango litzaiokeen azken puntuazioari.
- b) Taldeak bere esku-hartzea araututako denbora-mugetatik kanpo amaituko balu 5 segundoko aldea **gaindituz** soberan nahiz faltan (**bandera gorria**), **5** puntuko puntuazioa jasoko du dagokion proban, Erdiko Epailearengandik soilik.

- 10.6. Epaileek positiboki baloratuko dute Defentsa Pertsonaleko proban parte-hartzaileen kopururik handiena egotea teknikak exekutatzeko.

Edozein motatako exekuzio teknikorako aukera emango da, hala nola ekorketak, proiektzioak, lokadurak, etab., baldin eta exekutatzeko dituenak erakusten badu guztiz kontrolatzen dituela eta aurkariaren osotasun fisikoa arriskuan jartzen ez duela. **Erabat debekatuta dago artaziaren teknika lepoaldean egitea (Jodan Kani Basami).**

Halakorik eginez gero, taldeak 5 puntuko puntuazioa jasoko du, Erdiko Epaiarengandik soilik. Era berean, taldeko edozein kidek egindako keinu esajeratuak edo gehiegizkoak ere zigortuko dira.

Arriskuaren balorazioari dagokionez, kontuan hartuko da osotasun fisikorako arriskua gehiago dela exekutatzailearen trebetasunaren eta abileziaren arabera mugimenduaren beraren konplexutasunaren arabera baino. Beraz, lehiakide trebe eta entrenatu batentzat inolako arriskurik ez duen teknika edo mugimendu bat arriskutsua izan daiteke trebetasunik gabeko eta ondo entrenatu gabeko lehiakide batentzat.

- 10.7. Izena emandako guztiekin proba batean gutxienez parte hartzen ez duen taldea deskalifikatu egingo da.
- 10.8. Probaren batean 4tik beherako edo 6tik gorako lehiakide-kopuruarekin parte hartzen duen taldea deskalifikatu egingo da.
- 10.9. Izena emateko Orri Ofizialean izena emanda dagoen eta ezinbesteko arrazoiak direla-eta parte hartu ezin duen lehiakide baten taldeko ordezkariak edo entrenatzaile ofizialak Lehiaketa Batzordeari eskatu beharko dio, txapelketa hasi baino lehen, lehiakide horri taldean baja emateko, baja justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuz. Lehiaketa Batzordeak hala erabakitzen badu, taldearen parte-hartzea onartuko da aurkeztu gabeko lehiakidearen izen-ematea kontuan hartu gabe, baldin eta parte-hartzaileen amaierako kopurua ez bada ezarritako 4ko gutxienezkoa baino txikiagoa.
- 10.10. Arau hauetan jaso ez den edo arauekin kontraesanekoak dirudien edozein interpretazio tokian bertan ebatziko du Lehiaketa Batzordeak.

KUMITEA: KIMU ETA HAUR KATEGORIAK: GIZONEZKOAK / EMAKUMEZKOAK

1. KIMU kategorian, lehiakideen adina 8 eta 9 urtekoa izango da, dagokion txapelketa egiten den urte naturalean beteta.
2. HAUR kategorian, lehiakideen adina 10 eta 11 urtekoa izango da, dagokion txapelketa egiten den urte naturalean beteta.
3. KIMU kategorian, gutxieneko maila gerriko laranja izango da. HAUR kategorian, gutxieneko maila gerriko berdea izango da.

4. **Norgehiagokek 90 segundo iraungo dute.**

4.1. **Ato Shibaraku 80 segundo betetzen direnean adieraziko da.** Kronometratazaileak argi eta garbi entzun daitekeen gong bat joko du 10 segundo falta direla adierazteko. Baita borrokarako denbora amaitu dela adierazteko ere.

4.2. **Ato Shibaraku jo aurretik**, entrenatzaile bakoitzak aukera izango du 10''-ko denbora eskatzeko kirolariari bere jarduerari buruz orientazioa emateko. Entrenatzailea puntuazio-mahaira joango da denbora hori eskatzera. Mahaiak edo epaileek erdiko arbitroari emango diote eskaera horren berri.

4.3. Arbitroak ez du borroka berehala geratu beharrik izango. Egoera ebaluatu beharko du, eta "hutsarte"-eskaerari erantzun beharko dio, baina borroka gelditzeko uneak ez du abantailarik edo galerarik ekarriko lehiakide bakar batentzat ere.

4.4. Aurrekoa kontuan hartuta, arbitroak une egokian geldituko du borroka, eta lehiakideei adieraziko die beren entrenatzaileengana hurbil daitezkeela. Une horretan hasiko dira "**hutsarte**"ko **10 segundoak** kontatzen.

4.5. 10''-ak amaitu ondoren mahaitik ohartaraziko da, txilibitua behin joz, arbitroak lehiakideei adieraz diezaien beren lerrora itzuli behar dutela.

5. Borroka puntu-**mugarik** gabe egingo dira.

5.1. Lehiakide bat norgehiagokako irabazletzat joko da denbora amaitu baino lehen baldin eta lehiakideetako batek **sei (6) puntuko aldea** lortzen badu besteren puntuazioarekin alderatuta.

5.2. Denbora amaitzean, puntu gehien dituen lehiakidea irabazletzat joko da. Denboraren amaieran puntuazioak berdinak badira baina lehiakide batek markatutako lehen puntua oposiziorik gabe lortu badu (**SENSHU**), lehiakide hori irabazletzat joko da.

5.3. Lehiakideetako batek ere ez badu punturik lortu edo puntuazioak berdinak badira eta ez badago lehen puntua oposiziorik gabe markatu izanaren abantaila (**SENSHU**) duen lehiakiderik, norgehiagokaren emaitza goragoko kategorietan adierazitako irizpidearen arabera erabakiko da, hau da:

a) Borrokan lortutako Ippon kopururik handiena.

b) Borrokan lortutako Waza Ari kopururik handiena.

Berdintasuna egonez gero, erabakia HANTEI bidez hartuko da.

6. Tolerantzia egongo da Jodan mailan puntuak emateko irizpideetan, bai besoko zein zangoko tekniketan.
 - 6.1. Teknika puntuagarriak kontrolatu egin behar dira. Jodan teknikak saritzeko kontuan hartu behar ditugu baldin eta distantzia arrazoizkoa bada eta aurkariak ez badu saihesteko edo blokeatzeko saiakerarik egiten.
 - 6.2. Puntuazioa eman behar zaie, baldin eta eskatutako gutxienerako eskakizunak betetzen badituzte.
7. Berariaz debekatuta daude **desoreka-, ekorketa- eta proiektzio-ekintzak egitea.**
8. Arreta berezia jarriko da adin hauetako lehiakideen segurtasuna bermatzeko, eta zorroztasunez aplikatuko dira arauak (9. artikulua – RFEKren Kumite-lehiaketako Araudiaren portaera debekatua), **gehiegizko kontaktuei** dagokienez, baita kontrolik gabeko teknikei eta lehiakidearentzat arriskutsuak diren egoerei dagokienez ere.
9. Buruan, aurpegian eta lepoan egindako teknika guztiek behar bezalako kontrola izan behar dute puntuatuak izateko. Hala ere, buru-babesa erabiltzen denez, **“ukitua” oso azalekoa denean** eta teknikek irizpide egokiak dituztenean puntuatzeko balio dutela joko da, bai ukabilarekin egindakoak, bai zangoarekin egindakoak. *Era berean, gorputzera zuzendutako teknikek ere kontrol egokia izan behar dute.*
 - 9.1. Arbitraje-panelak arreta berezia jarriko die burura, aurpegira eta lepora zuzendutako teknikei, **“ukitu” oso azalekotzat** edo ohartarazteko edo zigortzeko aukera ematen duen kontaktutzat jotzen dena zehaztasun handiagoaz baloratu ahal izateko.
 - 9.2. Beraz, kontaktuak sortzen duen intentsitatearen eta efektuaren arabera **“azaleko ukitu bat baino gehiago”** gisa baloratutako ekintzetan, ohartarazi edo zigortu egingo da, hartzailearen babes-faltak edo zabarkeriak (MUBOBI) eragiten ez badu behintzat.
 - 9.3. Horrekin lortu nahi da lehiakide pasibo batek ez jasotzea merezi ez duen abantailarik zailtasun teknikoa duten ekintzak egiten dituen lehiakidearen aldean, eta hartzaileak kaskoan edo petoan ia ez ohartzeko moduko **“ukitu arin”** bat besterik ez jasotzean ez ohartaraztea edo zigortzea.
10. SENSHU eman zaion lehiakide batek ohartarazpen bat jasotzen badu gorabehera hauengatik borrokatzea saihesteagatik: Jogai, saihestu, heldu, borrokatu, bultzatu edo gorputzez gorputzera egon, **borrokaren 10 segundo baino gutxiago** geratzen direnean:
 - 10.1. **Lehiakideak abantaila hori automatikoki galduko du.**
 - 10.2. **Erdiko Arbitroak SENSHU seinalea adieraziko luke eta, azkenik, baliogabetze-seinalea (TORIMASEN), aldi berean AKA/AO SENSHU TORIMASEN iragarritz.**
 - 10.3. **4 epaileko Arbitraje Sistemari, Erdiko Arbitroa autonomoa litzateke ohartarazpen horiek egiteko epaileei iritzia galdetu gabe. Erdiko Arbitroak seinalatuko lituzke eta zuzenean zehatuko lituzke, SENSHU baliogabetuz, aurreko puntuan aipatzen den bezala.**

10.4. 2 Epaileko Arbitraje Sisteman, arbitroari laguntzeko, epaileek **Jogai** ohartarazpena seinala dezakete hori ikusitakoan. Arbitroa autonomoa izango litzateke borroka saihestea dakarten gainerako arau-hausteak zehatzeko; zuzenean adieraziko luke dagokiona, SENSHU baliogabetuz, 10.2 puntuak aipatzen den bezala.

10.3. **Norgehiagoka amaitzeko 10 segundo** baino gutxiago geratzen direnean SENSHU baliogabetzen bada, ezin zaio SENSHU gehiago eman lehiakideetako bati ere.

11. **Nahitaezko babesak hauek dira:**

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
- Eskularruak, gorriak edo urdinak	- Eskularruak, gorriak edo urdinak
- Zango-babesak, gorriak edo urdinak	- Zango-babesak, gorriak edo urdinak
- Oin-babesak, gorriak edo urdinak	- Oin-babesak, gorriak edo urdinak
- Petoa	- Petoa
- Genital-babesa	- Bular-babesa (aukerakoa)
- Aho-babesa (aukerakoa)	- Aho-babesa (aukerakoa)
- Buru-babesa	- Buru-babesa
- Besaurre-babesa	- Besaurre-babesa

11. **Pisu-kategoriak hauek dira:**

KIMUAK

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOENTZAT
< 28 kg	< 26 kg
< 34 kg	< 32 kg
> 34 kg	> 32 kg

HAURRAK

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
< 30 kg	< 30 kg
< 35 kg	< 36 kg
< 40 kg	< 42 kg
< 45 kg	> 42 kg
> 45 kg	

KUMITEA: GAZTE KATEGORIA, GIZONEZKOAK / EMAKUMEZKOAK

1. Lehiakideen adina 12 eta 13 urtekoa izango da, dagokion txapelketa egiten den urte naturalean beteta.
2. Gutxieneko maila gerriko urdina izango da.
3. Norgehiagokek 2 minutu iraungo dute.
4. Borroka puntu-**mugarik** gabe egingo dira.
 - 4.1. Lehiakide bat norgehiagokako irabazletzat joko da denbora amaitu baino lehen baldin eta lehiakideetako batek **sei (6) puntuko alde** lortzen badu bestearen puntuazioarekin alderatuta.
 - 4.2. Denbora amaitzean, puntu gehien dituen lehiakidea irabazletzat joko da. Denboraren amaieran puntuazioak berdinak badira baina lehiakide batek markatutako lehen puntua oposiziorik gabe lortu badu (SENSHU), lehiakide hori irabazletzat joko da.
 - 5.4. Lehiakideetako batek ere ez badu punturik lortu edo puntuazioak berdinak badira eta ez badago lehen puntua oposiziorik gabe markatu izanaren abantaila (SENSHU) duen lehiakiderik, norgehiagokaren emaitza goragoko kategorietan adierazitako irizpidearen arabera erabakiko da, hau da:
 - a) Borrokan lortutako Ippon kopururik handiena.
 - b) Borrokan lortutako Waza Ari kopururik handiena.

Berdinketa egonez gero, erabakia HANTEI bidez hartuko da.
5. Tolerantzia egongo da Jodan mailan puntuak emateko irizpideetan, bai besoko zein zangoko tekniketan.
 - 5.1. *Teknikak saritzeko kontuan hartu behar ditugu baldin eta distantzia arrazoizkoa bada eta aurkariak ez badu saihesteko edo blokeatzeko saiakerarik egiten. Puntuazioa eman behar zaie, baldin eta eskatutako gutxieneko eskakizunak betetzen badituzte.*
6. Araudia zorrotasun handiagoz aplikatuko da baldin eta gehiegizko kontaktua sabelaldean, bularraldean, bizkarrean eta RFEK-ko Kumite-lehiaketen Araudiaren 9. artikuluan (Portaera debekatua) aipatzen diren puntu guztietan bada.
 - 6.1. *Adin horietako lehiakideen segurtasunerako arreta berezia izan behar da, eta zorrotza izan behar da **gehiegizko kontaktuei, kontrolik gabeko teknikei eta proiektzio arriskutsuei** buruzko arauen aplikazioari dagokionez, bai eta lehiakidearentzat arriskutsuak diren egoeretan ere.*
7. Buruan, aurpegian eta lepoan egindako teknika guztiak behar bezala kontrolatu behar dira puntuatuak izan daitezzen.

“Ukitua” oso azalekoa den eta irizpide egokiak dituzten teknikak ontzat joko dira puntuatzeko, bai ukabilarekin edo zangoarekin egiten direnak. Hala ere, “azaleko ukitu bat baino gehiago” gisa baloratzen diren ekintza teknikoak, intentsitatearen eta kontaktuak sortzen duten efektuaren arabera, ohartarazi edo zigortu egingo dira, hartzailearen babesik ezak edo zabarkeriak (MUBOBI) eragiten ez baditu behintzat.

- 7.1. Arbitraje-panelak arreta berezia jarriko die burura, aurpegira eta lepora zuzendutako teknikei, **“ukitu” oso azalekotzat** edo ohartarazteko edo zigortzeko aukera ematen duen kontaktutzat jotzen dena zehaztasun handiagoaz baloratu ahal izateko.
- 7.2. Horrekin lortu nahi da teknikoki zailtasuna duten eta Jodan mailan zuzenak diren ekintzak egiten dituzten lehiakideak ez kaltetzea; hau da, ez ohartaraztea edo zigortzea ukabilak edo zangoak kaskoa oso arin ukitu besterik egiten ez duenean, eta hartzailea ia-ia ohartzen ez denean.
- 7.3. Helburua da lehiakide batek merezi gabeko abantailarik ez lortzea egoera jakin horietan arriskua eta zailtasuna bere gain hartuz ekintza teknikoak egiten dituenaren aldean.
8. SENSHU eman zaion lehiakide batek ohartarazpen bat jasotzen badu gorabehera hauengatik borrokatzea saihesteagatik: Jogai, saihestu, heldu, borrokatu, bultzatu edo gorputzez gorputzera egon, **borrokaren 15 segundo baino gutxiago geratzen direnean:**
- 8.1. **Lehiakideak abantaila hori automatikoki galduko du.**
- 8.2. Erdiko Arbitroak SENSHU seinalea adieraziko luke, eta, azkenik, baliogabetze-seinalea (TORIMASEN), aldi berean AKA/AO SENSHU TORIMASEN iragarritz.
- 8.3. 4 epaileko Arbitraje Sistemán, Erdiko Arbitroa autonomoa litzateke ohartarazpen horiek egiteko epaileei iritzia galdetu gabe. Erdiko Arbitroak seinalatuko lituzke eta zuzenean zehatuko lituzke, SENSHU baliogabetuz, aurreko puntuan aipatzen den bezala.
- 8.4. 2 epaileko Arbitraje Sistemán, arbitroari laguntzeko, epaileek **Jogai** ohartarazpena seinala dezakete, hori ikusitakoan. Arbitroa autonomoa izango litzateke borroka saihestea dakarten gainerako arau-haustek zehatzeko; zuzenean adieraziko luke dagokiona, SENSHU baliogabetuz, 8.2 puntuan aipatzen den bezala.
- 8.5. Norgehiagokaren 15 segundo baino gutxiago geratzen direnean SENSHU baliogabetzen bada, ezin zaio SENSHU gehiago eman lehiakideetako bati ere.
9. **Nahitaezko babesak hauek dira:**

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
- Eskularruak, gorriak edo urdinak	- Eskularruak, gorriak edo urdinak
- Zango-babesak, gorriak edo urdinak	- Zango-babesak, gorriak edo urdinak
- Oin-babesak, gorriak edo urdinak	- Oin-babesak, gorriak edo urdinak
- Petoa	- Petoa
- Genital-babesa	- Bular-babesa (aukerakoa)
- Aho-babesa (aukerakoa)	- Aho-babesa (aukerakoa)
- Buru-babesa	- Buru-babesa
- Besaurre-babesa	- Besaurre-babesa

9. Pisu-kategoriak hauek dira:

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
< 36 kg	< 37 kg
< 42 kg	< 42 kg
< 48 kg	< 47 kg
< 54 kg	< 52 kg
< 60 kg	> 52 kg
> 60 kg	

KATAK: BENJAMIN, KIMU, HAUR ETA GAZTE KATEGORIAK

1. BENJAMINAK

- a) Lehiakideen adina 7 urte edo gutxiagokoa izango da.
- b) Gutxieneko maila gerriko HORIA izango da.
- c) Oinarrizko Katen zerrenda ofizialeko Katak egingo dira.
- d) Kata bat errepikatu ahal izango da, baina **inoiz ez aurreko txandan egindakoa.**

2. KIMUAK

- a) Lehiakideen adina 8 eta 9 urtekoa izango da, dagokion txapelketa egiten den urte naturalean beteak.
- b) Gutxieneko maila gerriko LARANJA izango da.
- c) Lehen txandako Kata oinarrizkoa izango da, eta ezingo da errepikatu.
- d) Gainerako norgehiagoketan, oinarrizko Katen zerrenda ofizialeko Kata egingo da.
- e) Kata bat errepikatu ahal izango da, baina **inoiz ez aurreko txandan egindakoa.**

3. HAURRAK

- a) Lehiakideen adina 10 eta 11 urtekoa izango da, dagokion txapelketa egiten den urte naturalean beteak.
- b) Gutxieneko maila gerriko BERDEA izango da.
- c) Lehen txandako Kata oinarrizkoa izango da, eta ezingo da errepikatu.
- d) Gainerako norgehiagoketan oinarrizko Katen zerrenda ofizialeko Kata egingo da.
- e) Kata bat errepikatu ahal izango da, baina **inoiz ez aurreko txandan egindakoa.**
- f) **Finalean eta brontzezko dominarako norgehiagoketan,** Gazteen/Haurren Zerrenda Ofizialetik askatasunez hautatutako Kata bat egingo da.

Benjamin, Kimu eta Haur kategorietan, kontuan hartuko da haurrak direnez ez direla aplikatuko goi-kategorietako arau jakin batzuk, zehazki DESKALIFIKAZIOAREN kasuan:

I. ***Beraz, EZ da deskalifikatuko honako kasu hauetan:***

- Kata iragartzean egindako akatsa
- Kata ez iragartzea
- AGURRA ez egitea Kataren hasieran edo amaieran

Kasu horietan, azken ebaluazioa egiteko FALTA LARRI gisa hartuko da kontuan, exekuzioari puntuazioa kenduz.

II. ***Goi-mailako Kategorien Araudiaren DESKALIFIKAZIOAn adierazitako gainerako kasuetan, Seko gutxieneko puntuazioa aplikatuko da.***

4. GAZTEAK

- a) Lehiakideen adina 12 eta 13 urtekoa izango da, dagokion txapelketa egiten den urte naturalean beteak.
- b) Gutxienerako maila gerriko URDINA izango da.
- c) **GAZTEEN/HAURREN ZERRENDA OFIZIALEKO** Katak egingo dira. Lehen txandako Kata ezingo da errepikatu.
- d) Gazteen/haurren zerrenda ofizialeko Kata bat errepikatu ahal izango da, baina **inoiz ez aurreko txandan egindakoa.**
- e) **Finalean eta brontzezko dominarako norgehiagoketan,** Zerrenda Ofizialeko Kata bat egin ahal izango da, WKF/RFEKren Kata-lehiaketan Araudiaren goragoko kategorietarako arauen arabera.

Kategoria honetan, Goi-mailako Kategorien Araudiaren DESKALIFIKAZIOAn adierazitako kasu guztietarako, 5eko gutxienerako puntuazioa aplikatuko da.

5. TALDEKAKO KATA

- a) Kategoria bakoitzean banakako modalitatean jarraitutako arau eta irizpide berei jarraituko zaie.
- b) Finalean eta brontzezko dominarako norgehiagoketan **nahitaezkoa izango da exekutututako Kataren Bunkai egitea.**

GAZTEEN/HAURREN KATA-ZERRENDA OFIZIALA - OINARRIZKO KATEN ZERRENDA

1.	Pinan edo Heian	Taikyokus
2.	Gekisai-Daini	Pinan edo Heian
3.	Gekisai-Daichi	Gekisai-Daini
4.	Gekisai-Daisan	Gekisai-Daichi
5.	Fukio-Kata	Gekisai-Daisan
6.	Ananku	Fukio-Kata
7.	Bassai-Dai, Passai	Geki-Ha
8.	Enpi, Tomari no wanshu, Wanshu (wado-ryu)	
9.	Geki-Ha	
10.	Gyu-Roku	
11.	Jiin	
12.	Jion	
13.	Jin-I	
14.	Kanku-Dai, Koshokun-Dai. Kushanku	
15.	Kanku-Sho, Koshokun Sho	
16.	Kururunfa	
17.	Naifanchin-Shodan, Tekki-Shodan	
18.	Nipaipo	
19.	Niseishi, Nijushiho	
20.	Rohai	
21.	Saifa	
22.	Sanseru	
23.	Seienchin	
24.	Sepai	
25.	Wankan	

KADETEEN, JUNIORREN ETA SENIORREN KATA-ZERRENDA OFIZIALA, PROBA TEKNIKOAK

WKF/RFEKren Kata-lehiaketan Araudiaren 1. ERANSKINAREN arabera